



Argiztapen-lanpara segurua

Uretan sartu eta elektrokutatzeko arriskurik ez duen lanpara, energia gutxiago gastatzen duena eta sistema klasikoek baino gehiago irauten duena aurkeztu du duela gutxi Frantzia Lyongo Sogexi enpresak. Induzitutako deskargazko lanpara da atera berri duten hau eta bi oinarri ditu funtzionatzeko: in-

Argiztapen-lanpara segurua aurkeztu du duela gutxi Frantzia Lyongo Sogexi enpresak.



dukzioa eta maiztasun handia. Indukzioan oinarritua delako, erabateko segurtasuna eduki daiteke lanpararekin. Lehenbizi sareko korrante elektrikoa kutxa batera iristen da eta bertan haril batzuen bidez elektrizitatea eremu magnetiko bihurtzen da. Sareko zirkuitu elektrikoa hor amaitzen da. Kutxatik kanpo, eremu magnetikoak berriz ere korrante elektrikoa sortzen du lanparak argi egin dezan, baina ez dago, ez faserik eta ez lurrerako kablerik. Elektrokutatzeko arriskurik ez dago, beraz. Aipatutako kutxa horretan, sorgailu batek sareko korrantearen 50 Hz-


-eko maiztasuna 30.000 Hz-eraino igoazten du. Bonbilak segundoko dauden 30.000 tentsio-aldaketei igartzeko denborarik ez du eta ondorioz iraupe-na askoz ere handiagoa da. Gainera distortsio kromatikoa eta efektu estroboskopikoak baztertuta geratzen dira.

Lanpara-mota hau batez ere kaleak eta plazak argiztatzeko da egokia. Sistema klasikoek izan ere, lanparari transformadorea ipintzen diote eta elektrokutatzeko arriskua egoten da. Induxi izeneko sistema berrian, sorgailua eta harilak erretxinazko estalki batean eta kutxa batean daude sartuta. Lanparatik 60 metroraino sar daiteke lurpera. Beraz, lanpara erabat seguru geratzen da, sareko elektrizitatea lurpean geratzen delako.

Robota boleibolean

Japoniako Toshiba etxeak prestatu duen robot esperimental berriak boleibolean jokatzeko daki, baina horrez gain zer egin dezake?


Robot honek lan arriskutsuetan gizakia ordezka dezake.



Ikusmen, entzumen eta ukimenaz hornitua da, kaptore eta mikroka-meren bidez, eta diseinatu dutenek diotenez, gizakiak adina balio du lan fisikoak egiteko. Ingurune arriskutsuetan lan egin dezake, beraz; zentral nuklearretako irradiazio-lekuetan, adibidez.

CD-ROMak berridatzeko aukera

Informatikaren munduan aurrerapenak sekulako abiadan gertatzen direla badakigu. Oraingoan CD-RW berriaz hitz egin behar dugu; berridatz edo berriro graba daitekeen CD-ROMaz, hain zuzen. Duela gutxi Alemaniako Hannover hirian aurkeztu zen CD honek mota askotako datu digitalak irakurri eta graba ditzake: PCaren artxiboko segurtasun kopiak, hi-fi soinua edota berriz erabil daiteke. CD-RW diskoetan datuak idazteko grabagailu berezia behar da, baina disko hauek irakurtzeko belau-



Duela gutxi Alemaniako Hannover hirian aurkeztu zen CD berriak, CD-RWan, berridatz edo berriro graba daitezke.

naldi berriko CD-ROM aparatuak erabil daitezke, daramaten *Multiread* zirkuituari esker. Orain arteko CD-ROMak plastikoz eginak ziren, laser-argiarene bidez grabatzen zirelarik. Informazioa grabatu ondoren, ordea, ezin zen gainean berriz idatzi. CD-RW berriak zilar, indio, antonio eta teluriozko aleazio batez eginak daude. Aleazio hori kristalinoa da eta argiaren islatzaile bikaina ere bai. Horrek, diskoan berriz idazteko aukera ematen du. Ordenadore-enpresa nagusiak sistema berri hau merkaturatzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Oraingoan nahiko garestiak dira CD-RWak, baina laster merkaturatu direla diote adituek.

